

Ihesi

ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Buenos Aires

Ehun auzoen hiria (II): Tangoaren bideak

Joan den astean euskal etxeak izan genituen azken geltokia, Buenos Airesera egindako bisitaren lehenbiziko zatian. Hortik La Bocara abiatuko gara orain, Buenos Aires pobrera. Luze gabe itzuliko gara ordea distira handiagoko kaleetara. Argentinak dituen pasioetatik, tangoa da berezkoena. Goazen giro hori arnastera.

Buenos Aireseko hegoaldea da hiriaren alde txiroa. Hor dago La Boca, aitzineko portua, eta bertan Boca Juniors futbol taldearen Bombonera zelaia. Riachuelo ibaiaren gaineko burdinazko zubia zeharkatu eta 300 metrora, saltzailez jositako Caminito kale famatua dago, turisten bilgune. Euskal portuetan bezala, itsason-

tziak pintatu ostean soberan geratzen zen pintura erabili ohi zuten Caminitoko etxeak pintatzeko. Postal guztietako irudi polikromoa.


“C” subtean Retirorantz abiatuko da bidaiaria. Bistakoak dira Ingalaterraren presentziak utzitako lorratzak: burdinazko tren geltokiak, Ingelesen Dorrea...

Retiro auzoa eta beraren ondoan dagoen portua, aziendak eta garauak ateratzeko ingelesek garatutako garraiobide sarearen amaiera dira.

Auzo eksklusiboak eta pobrezia, elkarren ondoan

Palermo, Belgrano, Núñez, Recoleta. Diru hotsa gogorarazten

Buenos Aireseko kontrasteak. Ezkerretik eskumara, Caminito kale ospetsua, La Boca auzoan; Villa 31, hiriko txokorik pobreenetakoa; eta Palermo, bere basoengatik ezaguna den auzo aberatsa.





Ezkerrean, Ingelesen Dorrea. Bertatik oso hurbil, Malvina Uharteetako gerran hildako argentinarrei gorazarre egiten die monumentu batek. Atzean Kavanagh eraikina ikus daiteke. Lerro hauen gainean, bikote bat tangoa dantzatzen Florida kalean.

duten izenak. Hor daude Kavanagh eraikina, Palermoko basoak eta Arte Ederretako Museo Nazionala, Buenos Airesek nazioarteari erakusten dizkion ikurretako batzuk. Ez oso urrun txanponaren aurpegi iluna dago: milaka biztanle ditu Villa 31 auzoak, latorrizko txabolek osatutakoa, Sheraton luxuzko hoteletik metro gutxira.

Atzera itzuliko gara, mikrozentro deritzonera. Alderdi turistikoena da hau. Florida kaleko dende, Corrientes etorbideko antzokiek, zinemek, liburudendek... bisita merezi dute. Inguru horretan dago baita ere Maiatzeko etorbide famatua, izen bereko plazatik datorrena. Bidaiaariak hortxe aurkituko ditu Barolo jauregia –Danteren

Commedia, harri bihurtua—, hala nola Los 36 Billares eta Tortoni kafetegi historikoak, garai batean espainiar frankisten eta errepublikazaleen arteko liskarren lekuko izandakoak. Ezin ikusteke utzi, azkenik, Kongresuko eraikin neoklasiko miresgarria, Parisko oihartzunak dakartzana.

Ez dira benetan ehun

*Cien barrios porteños,
cien barrios de amor,
cien barrios metidos
en mi corazón.*

Hala dio 40ko hamarkadako vals ospetsu batek. Egiazki, 48 auzo daude Buenosen, bakoitzak bere nortasuna eta bere futbol taldea dituela: Boedo eta San Lorenzo, Patricios eta Huracán, Caballito eta Ferrocarril Oeste, Núñez eta River, Mataderos eta Nueva Chicago. Den-denak ezin aipatu, baina gogora ekar ditzagun behintzat Almagro, Abasto —hauxe dugu Carlos Gardel mitikoaren sorlekua—, Barracas eta Saavedra, auzo “tangoak”. Han daude turistentzat ez diren milongak, hau da, tangoa dantzatzeko aretoak. Hala ere, gaur egun ez da Buenos Airesen horrelako tokirik ez duen auzoa. Kalean ere aurkituko dituzu bikoteak dantzan, lehenago aipatu dugun Florida kalean batik bat.



Okela, mahaian errege

Bazkaldu eta afaltzeko, edozein leku ona da. Behi okela da Argentinako gastronomiaren erregea: *asadoa*, *bifea* eta abar, italiar jatorriko pizzak eta pastak ahaztu gabe, eta guzti-guztia Argentinako aparteko ardoek lagundurik. Baina kultura asko dago hirian, eta jaki arabiarrak, judutarrak edo txinatarrak ere aukeran daude, besteak beste. Bidaiaari bakoitzarentzat hiri bana dago Buenos Aires zabalean. ■